

Koiuntura di-da batean

2019ko abendua

Aurkibidea

1. BPGaren hazkundera
2. Inflazioa
3. Kanpo merkataritza
4. Konfiantza
5. Inguruneko hazkundera
6. ELGEren aurreikuspenak

Eranskina

1. EAEko ekonomia%2,1 hazi da hirugarren hiruhilekoan

Hazkundera hamarren bat handiagoa da urrian Kontuen Aurrerakinean iragarritakoarekin alderatuta.

2. Inflazioa %0,5ean mantendu zen urrian.

Argindarraren igoera erregaien jaitsiera batekin konpentsatu zen

3. Energiaz kanpoko esportazioek marka berria ezarri dute.

Petronorren geldialdiek atzerrian saldutako energia produktuen zenbatekoa murriztu zuten.

4. Konfiantza okertu egin da familien artean eta hobetu enpresetan.

Lehen kasuan indizea negatiboa izatera pasa da, baina bigarreanean hedapen eremuan dago.

5. Euroguneak hazkunde egonkorrari eutsi dio.

Alemaniko eta Italiako ekonomietan hobekuntza txikiak hauteman dira.

6. Munduko ekonomiaren hazkundera beherantz zuzendu da.

Testuinguru ekonomikoan arriskuak areagotu izanak azaltzen du berrikuspen hori.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA
Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza


DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Planificación

EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDE

EAEko ekonomia % 2,1 hazi zen hirugarren hiruhilekoan

Barne produktu gordina


Urte arteko aldakuntza tasa



Eustaten hiruhileko Kontu Ekonomikoen arabera, euskal ekonomia %2,1 hazi zen hirugarren hiruhileko hone-tan, eta hamarren batean gainditu zuen iragan urrian iragarritako kontu horien aurrerapenean kalkulaturako hazkundera. Datu hori Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egindako aurreikuspena baino hamarren bat be-herago dago. Aurreko aldian ez bezala, azken kontsumoko gastua (%2,0) hamarren bat igo zen bigarren hiruhi-lekoaren balioaren gainetik, administrazio publikoen azken kontsumoko gastuan oinarrituta (%2,4), eta horrek hedatzen jarraitu zuen. Bestalde, kapital-eraketa gordinak azken hiruhilekoetako dezelerazio-joera leundu du, eta hiru hamarren murriztu da,%2,2an kokatzeko.


Gastua azken kontsumoan

Urte arteko aldakuntza tasak




Kapital eraketa gordina

Urte arteko aldakuntza tasak




Industriaren balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasa



Eraikuntzaren balio erantsia


Urte arteko aldakuntza tasa



Azterketa sektorialari dagokionez, nabarmendu behar da guztiek egonkortasun handia izan zutela. Horrela, industria sektorea hamarren bat baino ez zen murriztu, eta %0,7an kokatu zen, 2018. urtearen amaierako moteltzea geldiarazi zuela baieztatuz. Eraikuntzaren sektoreak, berriz, aurreko hiru hilekoko hazkunde erritmoari eutsi zion (%2,9). Azkenik, zerbitzuen sektorea izan zen bilakaera positiboena izan zuena, %2,7ra iritsi baitzen, hamarren bat igo ondoren, bi azpisektore nagusien aurrerapenak lagunduta; bi azpisektore horiek hamarren bat igo ziren bi kasuetan.


Zerbitzuen balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasa




Merkataritza, ostalaritza eta garraioaren balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasa




Administrazio publiko, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuen balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasa



INFLAZIOA



Inflazioa %0,5ean mantendu zen urrian

KPI indize orokorra
 Urte arteko aldakuntza tasa



Kontsumoko prezioek beheranzko norabidea galgatu zuten urrian, baina 2018ko urtariletik jaso dituen balio minimoak markatzen jarraitu zuten, berriz ere %0,5 igo baitziren 2018ko hilabete berarekin alderatuta. KPI indizea maila berean mantendu izanaren arrazoia, funtsean, argindarraren igoera erregaiek izan zuten jaitsierak konpentsatu zuela da.

KPIaren banaketa
 Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2017	2018	2019ko urria	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	2,0	1,6	0,5	0,5
Azpiko inflazioa (%81,4)	1,1	0,9	1,1	0,9
- Elikagai landuak (%13,6)	0,0	0,9	1,0	0,1
- Industria ondasunak (%24,8)	0,3	-0,1	0,6	0,2
- Zerbitzuak (%43,0)	1,7	1,5	1,4	0,6
Hondar inflazioa (%18,6)	6,5	4,6	-2,2	-0,4
- Landu gabeko janariak (%7,6)	3,7	2,9	2,2	0,2
- Energia (%11,0)	8,2	5,9	-5,1	-0,6

Azpiko inflazioa
 Urte arteko aldakuntza tasak

Hondar inflazioa
 Urte arteko aldakuntza tasak


Brent motako petrolio upelaren eguneko prezioa Dolarrak



Iturria: Ekonomia eta Enpresa Ministerioa.

Aipatu ditugun erregaien prezioen jaitsieraz eta argindarraren igoeraz gain, frutak, eta pakete turistikoak ere kontsumo prezioen egonkortasunaren erantzuleak izan ziren, lehenengoak garestitu zirelako eta bigarrenak, ordea, merketu zirelako. Horiek horrela, talde batzuek, hala nola etxebizitzak, inflazioa gorantz bultzatu zuten, zortzi hamarren igo eta -%4,1ean kokatu ondoren. Etxebizitza bezala, elikagaien eta alkoholik gabeko edarien taldeak ere gora egin zuen %1,0tik %1,6ra, eta urrian inflaziorik handiena izan zuen taldea izan zen. Aitzitik, garraioaren prezioek, irailean ia egonkor zeudenak, beheranzko presioa egin zuten, haien urte arteko tasa erdira jaitsi baitzen (%1,6tik % 0,8ra murriztu zen). Azkenik, aisialdi eta kultura taldeak, bederatzi hamarreneko jaitsierarekin, iraileko datuekin alderatuta jaitsiera handiena izan zuen.

KPlaren talde nagusiak Urte arteko aldakuntza tasak. 2019ko urria

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	0,5	0,1	0,7
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	1,6	1,2	1,2
Edari alkoholdunak eta tabakoa	0,1	0,4	2,8
Jantziak eta oinetakoak	1,0	1,1	0,6
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-4,1	-3,9	0,4
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,4	0,8	0,5
Osasuna	0,8	0,8	0,7
Garraioa	0,8	-0,8	-0,2
Komunikazioak	1,0	0,9	-1,5
Aisia eta kultura	0,0	-0,2	-0,1
Hezkuntza	1,5	1,2	1,0
Jatetxeak eta hotelak	1,3	1,9	2,0
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	1,5	1,4	1,7


Iturria: INE eta Eurostat.

KANPO MERKATARITZA

Energiaz kanpoko esportazioek marka berria ezarri dute

Esportazio ez-energetikoen hazkundera. Milioi euro

Urtarriletik irailera bitarteko balio metatua




Eustatek irailari dagozkion atzerriarekiko ondasunen merkataritzaren datuak argitaratu ditu, eta horrek urteko lehen bederatzi hilabeteetako bilakaera argia ematen digu. Estatistika horren arabera, EAEko eragileek 18.875 milioi eurotik gorako balioa zuten produktuak esportatu zituzten aldi horretan. Kopuru handi hori gorabehera, Petronorrek egindako bi geldialdi teknikoek esportazio energetikoen bilakaera baldintzatu zuten, %17,2ko beherakada pilatu baitzuten eta esportazioen hazkunde osoa oztopatu zuten, %1,3 uzkuritu baitziren. Hala eta guztiz ere, urtarrila eta iraila bitartean pilatutako balioa orain arteko bigarren handiena izan zen. Osagai energetikoa alde batera utzita, esportazio ez-energetikoak %0,4 hazi ziren. Tasa hori aurreko urteetan lortutako mailekin alderatuta aurrerapen apala da, baina errekor berria dakar.

SALMENTEN ESPORTAZIOAK. Urtarriletik irailera


	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Esportazioak guztira									
Milioi €	15.273,9	14.883,5	15.270,2	16.377,3	16.227,0	16.065,5	17.710,4	19.115,6	18.875,4
Tasa	18,4	-2,6	2,6	7,3	-0,9	-1,0	10,2	7,9	-1,3
Esportazio ez energetikoak									
Milioi €	13.877,3	13.744,3	13.769,0	14.206,0	14.401,1	14.916,5	16.160,6	17.306,4	17.377,6
Tasa	16,9	-1,0	0,2	3,2	1,4	3,6	8,3	7,1	0,4

Iturria: Eustat.

Esportazio guztiak helburuaren arabera





Esportazio ez-energetikoen banaketa



EAEko enpresen merkataritza bazkide nagusiek (batez ere Erresuma Batukoek eta Frantziakoek) erakutsitako egonkortasunak ekipamendu ondasunen salmentak bultzatu zituen, bai garraio materialarenak (%3,9), bai makina eta aparatuenak (%2,2), bai plastikoarenak eta kautxuarenak (%0,5), baina ez energia atalaren (-%17,2) eta metal arrunten eta horien manufakturen (-%6,4) kontrakzioak konpentsatzeko adinako zenbatekoan.


Inportazioek, bestalde, ibilbide dinamikoagoa erakutsi zuten (guztizkoak %0,8 eta energiaz bestekoak, berriz, %2,2), nahiz eta energia sektoreak eta metal arruntek uzurtu egin zituzten. Horren guztiaren ondorioz, bederatzi hilabete hauetako saldo garbia berriz ere positiboa izan zen, eta 3.728 milioi eurotik gorako superabit komertziala ekarri zuen. Izaera energetikoko produktuak alde batera utziz gero, saldo ez-energetikoak ia 6.307 milioi euroko superabita ekarri zuen.

Inportazio ez-energetikoak. Milioi €
Urtariletik irailera bitarteanSaldo ez-energetikoa. Milioi €
Urtariletik irailera bitartean

KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

Konfiantza okertu egin da familien artean eta hobetu enpresetan

Familien konfiantza indizea



EAEko familien konfiantza indizeak, 2019ko hirugarren hiruhilekoan, beherakada nabarmena izan zuen -5eko baliora iritsi arte, hau da, 8 puntuko galera izan du aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Indizea balio negatibotara itzuli da, bederatzi hiruhilekotan jarraian eremu positiboan egon ondoren. Ekonomiaren moteltzea, eze-gonkortasun politikoa, Brexita eta muga zergen gerra bezalako elementuak kontsumitzaileen konfiantza oztopatzen duten faktoreak dira. Ezkortasunera itzultze hori Estatuko gainerako lurraldeetako eta Europar Batasuneko familien artean ere gertatu da.


Indizearen okertzea orokorra izan da osagai guztietan, baina bereziki handia da ekonomia orokorraren bilakaerari eta langabeziari buruzko igurikimenen narriadura, bi kasuetan hamar puntu baino gehiago galtzen baitute.

FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA

	2017	2018	2018			2019		
			II	III	IV	I	II	III
Familien konfiantza	1	1	2	-0,5	3	2	3	-5
Ekonomia orokorra	6	3	3	1	3	2	3	-10
Familien ekonomia	-5	-4	-3	-4	-2	1	0	-2
Langabeziaren bilakaera	12	10	15	5	7	4	8	-7
Aurrezteko ahalmena	-10	-5	-7	-5	3	-1	4	0
Prezioen bilakaera	-17	-23	-18	-23	-25	-17	-17	-16
Erosteko gunea	-3	-9	-11	-15	-7	-2	-3	-6
Erosteko igurikimena	-7	-6	-6	-5	-8	3	-2	-2

Iturria: Laboral Kutxa.

Enpresarien konfiantza indizea



Bestalde, Laboral Kutxak argitaratutako enpresen konfiantza indizea 52,0an kokatu da 2019ko laugarren hiruhilekoan. Datu horrek esan nahi du igoera txiki bat izan duela aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. 50 puntutik gora dagoenez, indizeak hedapen eremuan kokatuta jarraitzen du. Hala ere, EAEko enpresek ikuspegi nahiko baikorra dute 2019ko azken hilabeteetarako ekonomiaren bilakaerari buruz. Osagaien arabera, ekoizpen gaitasunari eta enplegu kopuruari eustea aurreikusten dute enpresaburuek. Beste aldagai batzuei dagokienez, enpresek egonkortasun bat nabarmentzen dute bezeroei kobratzeko epeetan eta bankuak finantzatzeko erraztasunean.

Enpresarien igurikimenak. 2019ko IV hiruhilekoa




Iturria: Laboral kutxa.

EUROPAKO HAZKUNDEA

Euroguneak hazkunde egonkorragi eutsi dio

Euroguneko BPGaren bilakaera


Urte arteko aldakuntza tasa



Eurostatek argitaratutako azken datuek diote euroaren eremua egonkor mantendu zela urteko hirugarren hiru hilekoan. Hazkunde horrek (%1,2), lehen zenbatespena baino hamarren bat altuagoa, esan nahi du Euroguneak urtebete bat daramala balio horretatik hurbil hazten. Alemaniak, pronostiko guztien aurka, hobera egin zuen apur bat hirugarren hiru hilekoan, barne kontsumoaren bultzadari eta eraikuntzari esker; tentsio komertzialen eta Brexit-aren eragina indargabetu baitzuten. Hala eta guztiz ere, hazkunde txikia izan zuen berriro (% 0,5). Frantzian, jarduera ekonomikoak bizitasuna galdu zuen, nahiz eta lau hiru hileko daramatzan hazkunde erritmo nahiko konstantearekin. Kasu honetan, kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren egonkortasuna murriztu egin zen kanpoko eskari baten ondorioz, eta horrek hamarren batzuk drainatu zizkion jarduerari. Inportazioen tirakada handiak azaltzen du kenketa hori. Horren ondorioz, herrialdeko BPGa %1,3 handitu zen.


Alemaniko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Frantziako BPGa


Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eurostat.

Italiako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasak

**Portugaleko BPGa**

Urte arteko aldakuntza tasak




Italiako ekonomia %0,3 hazi zen, aurrerapen eskasa baina garrantzitsua aurreko bederatzi hilabeteetako hazkunde ia hutsalak kontuan hartuz gero. Lan merkatuaren bilakaera onak ekonomia horren susperraldia bermatzen du. Hain zuzen ere, aurtengo hirugarren hiruhilekoan langabezia tasa %9,8ra jaitsi zen, 2011ko amaieratik izandako daturik baxuena baita. Portugalek, berriz, tonu onari eutsi zion, ingurunean ezegonkortasuna handia izan arren. Kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren adierazleek erakusten dute jardura ekonomikoak bilakaera ona izan duela, %1,9 hazi baita, aurreko hiruhilekoaren erritmo berean.


Eurogunetik kanpo, Erresuma Batuan BPGa %1,0 hazi zen urteko hirugarren hiruhilekoan, 2010eko lehen hiruhilekotik jaso duen kopururik txikiena baita. Merkataritza gerrak eragindako tentsioek aurrerapen eskasa ekarri zuten esportazioetan (%0,2). Orobat, Brexit-ari buruzko kezkek inbertsioan eragin zuten (-%0,4), batez ere enpresetan, manufakturen industrian eta inportazioetan, %0,6 jaitsi baitziren. Hiruhileko arteko tasan, BPG britainiarra %0,3 hazi zen, aurreko hiruhilekoko -%0,2tik urrun, eta horrek, oraingoz, atzeraldi baten arriskua atzean uzteko aukera ematen dio.

Herbehereetako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasak

**Erresuma Batuko BPGa**

Urte arteko aldakuntza tasak




ELGE-REN AURREIKUSPENAK

Munduko ekonomiaren hazkundera beherantz zuzendu da

Munduko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundearen (ELGA) aurreikuspen berrien arabera, 2019an eta 2020an munduko ekonomiaren hazkundera %2,9koa izango da, eta 2021ean %3,0ra iritsiko dela aurreikusten da. Aurreikuspen berri horiek beherantzko berrikuspena dakarte munduko ekonomia nagusi gehienentzat, maiatzean argitaratutako aurreikuspenekin alderatuta. Beherantzko zuzenketa horren arrazoiak testuinguru ekonomikoan arriskuak areagotu izana da. Merkataritza murrizketen gorakadak, Brexit-ak ekarri duen ziurgabetasunak eta tentsio geopolitikoek, petrolioaren prezioa handitzea ekar baitezakete, hazkunde ekonomikoaren igurikimenak ahultzen ditu.

ELGE-REN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak				Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2017	2018	2019	2020	2018	2019
Munduko ekonomia	3,5	2,9	2,9	3,0	-0,3	-0,5
AEB	2,9	2,3	2,0	2,0	-0,5	-0,3
Eurogunea	1,9	1,2	1,1	1,2	=	-0,3
Alemania	1,5	0,6	0,4	0,9	-0,1	-0,8
Espainia	2,4	2,0	1,6	1,6	-0,2	-0,3
Frantzia	1,7	1,3	1,2	1,2	=	-0,1
Italia	0,7	0,2	0,4	0,5	+0,2	-0,2
Erresuma Batua	1,4	1,2	1,0	1,2	=	=
Kanada	1,9	1,5	1,6	1,7	+0,2	-0,4
Japonia	0,8	1,0	0,6	0,7	+0,3	=
Txina	6,6	6,2	5,7	5,5	=	-0,3
India	6,8	5,8	6,2	6,4	-1,4	-1,2
Brasil	1,1	0,8	1,7	1,8	-0,6	-0,6


AEBetako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Euroguneko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Alemaniko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Espainiako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




ELGEk bere txostenean adierazten du ziurgabetasuna murriztera, eskaria babestera, bizi mailak hobetzera eta, azken batean, eragile ekonomiko-en konfiantza handitzera bideratutako politika eraginkorrak behar direla. Ildo horretan, bereziki apalak diren interes tasek aukera ematen diote zerga politikari eskaria bultzatzeko, epe ertainean hazkunde iraunkorra ahalbidetuko duten neurrien bidez.

Beheranzko arriskuak gauzatuko balira eta espero baino hazkunde txikiagoak lortuko balira, nazioarteko lankidetzak erabakigarria izango da merkataritza arau bidezkoak eta gardenak adosteko.

Txinako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



EAE-KO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018		2019		
			III	IV	I	II	III
BPG	2,8	3,0	3,0	2,6	2,2	2,2	2,1
Familien kontsumoa	3,1	2,7	2,6	2,5	2,2	1,9	1,8
Administrazioaren kontsumoa	2,1	1,6	1,7	1,3	2,0	2,0	2,4
Kapital eraketa gordina	3,1	4,7	4,8	4,6	4,0	2,5	2,2
Barne eskaria	2,9	3,0	3,0	2,8	2,6	2,0	2,0
Esportazioak	4,8	3,0	2,1	0,7	-1,4	2,8	-0,9
Inportazioak	5,0	3,0	2,2	1,1	-0,8	2,6	-1,0
Lehen arloa	10,1	7,9	4,8	15,9	4,6	-0,1	-1,8
Industria	2,5	2,5	2,5	0,3	0,6	0,8	0,7
Eraikuntza	1,6	4,1	5,4	6,2	4,8	2,9	2,9
Zerbitzuak	2,9	2,7	2,5	2,7	2,6	2,6	2,7
Balio erantsi gordina	2,8	2,8	2,7	2,4	2,2	2,2	2,1
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,3	4,9	5,1	3,8	2,2	1,9	2,0

Iturria: Eustat.

Aurreikuspenak. 2019ko iraila

Urte arteko aldakuntza tasak

	2019		2020				2019	2020
	III	IV	I	II	III	IV		
BPG	2,2	2,3	2,2	2,0	1,8	1,8	2,2	2,0
Barneko azken kontsumoa	1,9	2,0	1,9	1,9	1,8	1,7	2,0	1,8
Familien kontsumoa	1,9	2,0	2,0	1,9	1,9	1,8	2,0	1,9
Administrazioaren kontsumoa	2,0	2,1	1,9	1,8	1,7	1,7	2,0	1,8
Kapital eraketa gordina	2,7	3,0	2,9	2,7	2,7	2,8	3,0	2,7
Barne eskariaren ekarpena	2,2	2,4	2,3	2,1	2,0	2,1	2,3	2,2
Kanpo eskariaren ekarpena	0,0	-0,1	-0,1	-0,1	-0,2	-0,3	-0,1	-0,2
Lehen arloa	2,6	4,2	-0,3	-2,6	-7,5	-5,0	2,8	-3,9
Industria	1,2	1,3	1,1	1,3	1,5	1,5	1,0	1,4
Eraikuntza	3,0	3,0	2,8	2,6	2,4	2,4	3,4	2,6
Zerbitzuak	2,5	2,6	2,5	2,2	2,1	2,0	2,6	2,2
Balio erantsi gordina	2,2	2,3	2,2	2,0	1,8	1,8	2,2	2,0
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,9	2,1	1,7	1,8	1,8	1,6	2,0	1,7
Enplegua	1,4	1,4	1,3	1,2	1,1	1,1	1,6	1,2

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2019	2020		2019	2020
Confebask	2,5	—	Funcas	2,2	—
Laboral Kutxa	2,2	2,1	CEPREDE	1,9	1,6
Hispalink (BEGaren aldakuntza)	2,2	2,0	BBVA	1,7	1,7

Iturria: CEPREDE (2019ko azaroa), BBVA (2019ko urria), Confebask (2018ko abendua), Laboral Kutxa (2019ko uztaila), Funcas (2019ko ekaina) eta Hispalink (2019ko uztaila).

ESPAINIAKO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018		2019		
			III	IV	I	II	III
BPG	2,9	2,4	2,2	2,1	2,2	2,0	2,0
Kontsumo pribatua	3,0	1,8	1,6	1,2	1,1	0,6	1,5
Kontsumo publikoa	1,0	1,9	1,9	2,2	2,2	2,2	2,2
Kapital finkoaren eraketa gordina	5,9	5,3	5,3	3,5	4,8	1,0	2,0
- Aktibo finko materialak	7,0	6,2	6,3	4,0	5,8	1,0	2,0
- Eraikuntzan	5,9	6,6	6,1	5,7	4,2	2,9	-0,7
- Ekipamendu ondasunetan	8,5	5,7	6,8	1,4	8,0	-2,2	5,6
- Jabetza intelektualaren produktua	1,3	1,1	0,7	1,0	-0,1	1,1	2,2
Nazio eskaria (ekarpena)	3,0	2,6	2,5	2,0	1,9	1,0	1,8
Esportazioak	5,6	2,2	1,6	0,1	0,3	2,2	2,3
Inportazioak	6,6	3,3	2,5	-0,3	-0,4	-0,7	2,0

Iturria: INE.

Espainiako ekonomiarako hainbat aurreikuspen

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2019	2020		2019	2020
AFI	1,9	1,7	IEE	1,9	1,5
Axesor	2,0	1,6	Intermoney	1,9	1,6
BBVA	1,9	1,6	Repsol	1,8	1,5
Bankia	1,9	1,5	Santander	2,0	1,7
CaixaBank	1,9	1,5	Solchaga Recio & asociados	2,0	1,6
Espainiako Merkataritza Ganbera	2,0	1,7	Batez bestekoa	2,0	1,6
Cemex	2,0	1,6	Gobernua(2019-10)	2,1	1,8
CEEM-URJC	2,0	1,6	Espainiako Bankua (2019-09)	2,0	1,7
CEPREDE-UAM	2,0	1,7	Europako Batzordea (2019-11)	1,9	1,5
CEOE	2,0	1,6	NDF (2019-10)	2,2	1,8
FUNCAS	1,9	1,5	ELGE (2019-11)	2,0	1,6
ICAE-UCM	1,9	1,5	Consensus Forecast (2019-11)	2,0	1,6

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

NAZIOARTEKO EKONOMIA

Ekonomia hazkundera

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018		2019		
			III	IV	I	II	III
AEB	2,4	2,9	3,1	2,5	2,7	2,3	2,1
Txina	6,9	6,6	6,5	6,4	6,4	6,2	6,0
Japonia	1,9	0,8	0,2	0,3	0,9	0,8	1,4
Kanada	3,0	1,9	2,0	1,6	1,4	1,6	—
Europar Batasuna	2,6	2,0	1,8	1,5	1,7	1,4	1,3
Eurogunea	2,5	1,9	1,6	1,2	1,3	1,2	1,2
Alemania	2,5	1,5	1,1	0,6	0,9	0,3	0,5
Frantzia	2,3	1,7	1,5	1,2	1,3	1,4	1,3
Erresuma Batua	1,9	1,4	1,6	1,5	2,1	1,3	1,0
Italia	1,7	0,8	0,4	0,0	0,0	0,1	0,3
Herbehereak	2,9	2,6	2,3	2,1	1,9	1,6	1,8

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

Consensus Forecast. 2019ko azaroa

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2019	2020	2019	2020	2019	2020
AEB	2,3	1,8	1,8	2,0	3,7	3,7
Japonia	1,0	0,2	0,6	0,7	2,4	2,4
Kanada	1,5	1,6	2,0	1,9	5,6	5,7
Europar Batasuna	1,3	1,2	1,5	1,5	—	—
Eurogunea	1,1	1,0	1,2	1,2	7,6	7,5
Alemania	0,5	0,8	1,4	1,5	5,0	5,1
Frantzia	1,3	1,1	1,2	1,3	8,3	8,1
Erresuma Batua	1,3	1,1	1,9	1,9	3,9	4,1
Italia	0,1	0,4	0,7	0,9	10,0	10,0
Espainia	2,0	1,6	0,8	1,1	—	—
Herbehereak	1,6	1,3	2,6	1,6	—	—

Iturria: Consensus Forecast.